



Gregorio Monreal Zia

Zuzenbidearen Historialaria. Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral sariduna, 2007. urtean.

Gregorio Monreal Zia, Zuzenbidearen Historiako Katedradun da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Bere ikerketa ildo nagusia Euskal Zuzenbidearen erakundeen azterketa izan da, bere Doktoretza Tesia jasotzen duen "Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya"tik hasi, berriki ezagutzera eman duen "The Old Law of Bizkaia (1452)"era, argitarapen ugari kaleratu du. Horrez gain pentsamendu politikoaren historiak ere erakarri du bere interesa. Kudeaketa akademikoan ardurarik gorenak izan ditu, dela Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailordetza, eta egun Euskal Herriko Zuzenbide Historikoa eta Autonomikoa aztertzeke Fundazioaren Zuzendari Zientifikoa da. Gregorio Monreal jauna Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Sariduna izan zen 2007. urtean.

1.

Duela hilabete batzuk jaso zenuen Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral saria, EAEko lehendakariaren eskutik; bertan izan ziren EAEko eta Nafarroako erakunde akademiko eta politikoen ordezkari gorenak. Zer zen, zure ustez, saritzen zena?

Ez nago erabat ziur. Epaimahaiaren idazkaritzaren arrazoibidea irakurriko dizut: "Epai Mahaiak kontuan izan du Monreal jaunaren arlo akademikoa, ikerlari eta irakasle gisako ibilbide luzea, eta izan duen eragina, besteak beste, arlo juridiko, historiko, eta oro har kulturallean.

Bestalde, kontuan hartu izan du Epai Mahaiak nabarmenki kudeaketa arloan goi mailako erakundeen eraketa zein sustaketan egin duen lana: Euskal Herriko Unibertsitatean –errektore izan zelarik– Eusko Ikaskuntzan –lehendakaria izanik– eta sortzailea beste kasu batzuetan –Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoaren Institutua, adibidez–.

Euskal Herri osoa izan ezik, nazioarteko beste guna akademikotan ere burutu du bere lana. Bere jardueran eragile eta bultzatzaile izan delarik, estola sortu du Monreal jaunak, erreferentea bihurtuz gaurko euskal gizartean. Azkenik, Epai Mahaiak nabarmendu nahi du ere Monreal jaunaren onetasun intelektuala bere ekintza guztietan.

2.

Zein dira zure ibilbide akademikoan azpimarragarrien jotzen dituzun gertakariak?

Nire ibilbide akademikoa garai haietarako ohikoa zena izan zen, hasieran; 1983ko Unibertsitate Erreforma Legearen aurretik jendeak oro har egin ohi zuena, alegia. Lanpostuak betetzeko sistemak behartuta, hainbat unibertsitatetan egonaldiak egin behar izaten ziren, orduan, norberak iritsi nahi zuen hartara iristeko. Horregatik aldatu nintzen Deustutik Donostiara, eta handik Valladolidera, Extremadurara, Konplutentsera eta Euskal Herriko Unibertsitateara, zeinetan egin baintuen 18 urte. Baina laster beteko ditut 13 urte NUPen. Bidaiariarengan arrasto sakona uzten du halako ibilbidea egin behar izateak. Alde batetik, Erdi Aroan esaten zen moduan, erromes dabilen fraidea ez da inoiz santutzen, baina beti ikasten du zer bait, arretaz behatzen duen eta, askotan, bera protagonista duen bizitza horretatik. Niri dagokidanez, Espainiako komunitate zientifikoa apur bat ezagutzeko aukera eman zidaten joan-etorri haiek. Bestalde, garai hartako irakasle bihurtzeko sistema zorrotza hurbiletik ezagutu ahal izan nuen; irakaslegai kementsuenaren eramana ere kolokan jar zezakeena. Orduan, laidoztatu egiten zen sistema hura. Gerora zer etorri den ikusita, ordea, ezin esan hura hain txarra zenik ere.

3.

Saria eman zizutenek Euskal Herriko Unibertsitatea sortzen eta finkatzen egindako lana azpimarratu zuten. Nola gogoratzen dituzu garai haiek?

Era kontrajarrian, interes handia sortu zigun zerbaitek sufrimendua ere eragin ziguneko garaiak oroitzen diren moduan. Dostoiewskyk zioen giza izatearen ezaugarria dela, azkenerako, bizitzako gatazkek sortutako sufrimenduak maitatzea. Eta egia esan, erakundeak sekulako arazoak zituen laurogeiko hamarraldiaren hasieran. Eraikin, irakasle eta aurrekontuen falta handia zegoen, eta urtero-urtero ikasleak uholdeka sartzen zirenez, masifikatuta zegoen erabat Unibertsitatea. Bestalde, egongaitzasun handia zegoen, Unibertsitateak izan behar zuenari buruz ideia bitxi samarrak zituzten gutxiengo baten presentzia oso aktiboak eragindakoa. Gutxiengoa esan dut, baina indar handia erakusten zuten klaustroetan. Klaustroei gaitasun taumaturgikoak egozten zizkieten haiek, eta klaustroaren adierazpen hutsalenak ere, unibertsitate herritarra, eraldatzailea, iraultzailea

sortzeko abiapuntua izan behar zuela ematen zuen. Gogoan ditut, halaber, gure muga eta baldintza guztiez ohartzen ziren beste unibertsitario asko ere. Guztien artean sekulako ahaleginak egin genituen Unibertsitatea Europa aldean zegoenarekin homologatzeko moduko zer bait izan zedin, edo gutxienez, Espainian begirune handiagoa zor zitzaizen beste unibertsitate batzuetan zegoenarekin parekatzeko moduko zer bait. Garai hartan eta egoera horretan beste ezer egiten saiatzea alferrik izango zen, alferreko ahalegina. Hartantxe saiatu ginen, bada, eta egin genuen zer bait. Baina, jakina, posible zenak ezin zirrararik sortu... Orduan, gaur egun bezalaxe, gehiago erakartzen zuen utopiak eta hausturak, posibilismo gordinak baino.

4.

Azken hogeitertan amaigabeko erreformak izan ditugu Unibertsitatearen egitura osoan, dela irakasleen karrera akademikoan, dela ikasketen antolaketa, baina ez du ematen gauzak, finean, asko aldatu direnik... Zu hainbat unibertsitateko irakasle izan zara: nola ikusten duzu Unibertsitatea, Espainian eta European?

European, ez dakit, dagoeneko ez bainaiz kanpoan ibiltzen; entzuten dudanaren arabera hitz egiten dut. Eta Estatuan, nire unibertsitatea ezagutzen dut, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, irakasle arrunt modura, eta dezente gutxiago EHU; beste batzuei buruz, berriz, kontatzen didatena baino ez. Mere ustez funtsezko aldaketa baliabideetan gertatu da: higiezinetan, ekipamenduetan, liburutegietan, informatizazioan... Idazkaritza eta bitarteko laguntzen arloa okerrago dabil; horregatik, irakasle eta ikertzaileek, laguntzailerik ezean, bertan behera utzi behar izaten dituzte beren eginkizunak eta denbora gehiegi eman behar izaten diete administraziozko zeregeinei. Karrera akademikoari dagokionez, promoziorako ebaluazioa objektibatzeko urratsak egin dira, nire ustez, 1983az gero gertatutakoa gaindituta edo. Baina, desagertuko ote da iraganeko joera? Saitetan dabilzan irakasle-mandarinen —eta zalantzan jartzeko moduko merezimenduekin horietako asko— hatz arbitrarioak erabakigarria izateari utziko ahal dio inoiz! Karrera akademikoa merezimenduen ez beste ezerean arabera erabakiko ahal da etorkizunean, eta ez buruzagi baten, politikaren arabera! Nire ustez, eta zoritxarrez, belaunaldi batez, gutxienez, indar handia izango du inertziaren indarrak; eredu burokratiko-autoritarioa izan baita irakasle nagusiek eta gazteek aurrez aurre eduki duten bakarra.



5.

Euskal zuzenbidearen hainbat erakundez arduratu izan zara: *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya* zure tesia izan zenetik, *The Old Law of Bizkaia* (1452) Nevadako Unibertsitatean argitaratu zenuen liburura, tartean beste lan asko direla. Ba al da euskal zuzenbiderik?

Euskal lurraldeen zuzenbide bat dago. Sistema oso eta itxi bat, Nafarroako Erresuman; eta azpisistema zabal samar bat, berriki autonomo egin dena, Gaztelako zuzenbidearen barruan, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Nafarroan, zuzenbidearen bilakaera erresumaren eskemari atxiki zitzaion, eta hiru herrialdeetan, berriz, foru-autonomia oso bizkor garatu zen, Bizkaiaren ereditutik abiatuta, hura izan baitzen gainerakoen erreferentzia.

Aniztasunak, ordea, ez du eragozten muin komuna izatea, bai zuzenbide publikoan bai pribatuan, eta antzekotasun hori are gehiago nabarmendu zen Aro Modernoan. Hortaz, zuzenbide espainiar, frantses, italiar edo alemanaz hitz egiterik baldin badago (azken bi adibideetan, XIX. mendean oso aurrera arte ez zen lortu batasun juridikorik), norik eragotzi ahal digu euskal zuzenbidez hitz egitea, batez ere Espainiako estatuak azken bi mendeetan “estatu-politika” berezi baten bidez batasun konstituzionala lortzearren egin duen norabide bakarreko ahaleginari kontrajarririk besterik ez bada?

6.

Zein dira, zure aburuz, euskal zuzenbidearen oinarritzko erakundeak?

Juan Antonio Llorentek 1806an plazaratutako *Noticias Históricas* lanetik aurrera (eta lehenago Fontecha y Salazarrengandik) joera konstante bat izan da Euskal Herrekiko zuzenbide publikoaren oinarritzko erakundeei dagokionez. Llorentek finkatutako ordena nabarmen sendotu zuten Aranguren y Sobradok eta Novia de Salcedok, haren obrari egindako kritiken bidez. Eta ia erabat onartuta gelditu zen tratatu baten moduko Marichalar eta Manriqueren *Fueros de Navarra, Álava, Guipúzcoa y Vizcaya* lanarekin. Baina, bitxia badirudi ere, geroagoko egileek ez dute erakundeen identifikazio hori errespetatu, ezta azalpen-sistema hori ere, esperientzian eta foru-sistemaren zuzeneko ezagutza sakonean oinarritua zena.

Lehenik eta behin, Aro Modernoaren hasieran kaparetasuna edo hidalgia orokortzeari esker lortutako nolabaiteko berdintasun juridiko formala aipatu beharko litzateke. Hala ere, Araban –eta baita Nafarroako petxero-eremu batzuetan ere– jauntxoek izan zuten zabalkundearen ondorioz, berdintasun printzipioak ez zuen hainbestearainoko indarririk izan aipatutako inguruetan. Bigarrenik, aipatzekoak dira, kaparetasun orokorrari atxikiriko berezko eskubide gisa, askatasun prozesalen eta beste maila bateko askatasunen sistema, adibidez, merkataritza-askatasuna, hainbat mendez, euskal ekonomiaren garapenerako funtsezkoa izan zena. Horri erantsi behar zaio erregeak inposaketarik ez egiteko printzipioa eta salbuespen militarra (printzipio gisa, fiskalitatearen eta prestazio militarren benetako funtzionamendua alde batera utzita), euskal sistemaren oinarritzko erakundeak, horiek ere. Eta, gero, antolamendu politiko eta administratiborako burujabetasuna, hasi zinegotzigoetatik botere arauemailea zuten batzarretaraino, Batzar Nagusi eta Diputazioetaraino, XVI. mendearen amaieran sortu ziren gobernu-ordezkaritzako organo ahaltsuak azken bi horiek. Sistemaren osotasunaren berme izateko xedea duen erakundeak buru ematen dio sistema horri guztiari: foru-paseak, hain zuzen ere. Foru-pasea 1840ra arte egon zen indarrean, Esparterok deuseztatu zuen arte. Erakunde haietako batzuen garrantziaz ohartzeko, oso argigarria da Esparteroren 1841eko urriaren 29ko dekretua.

7.

Zer garrantzi izan zuen zuzenbide erromatarrek, zuzenbide erkideak, alegia, euskal zuzenbidean?

Zuzenbide erromatarra Europako kontinenteko zuzenbide guztien oinarri izan zen bi garai historiko luzetan. Eta denbora garrantzi handiko eragilea da, egiturak eta pentsamoldeak taxutzeari dagokionez. Zuzenbide erabakigarria izan zen hasieran, Errepublikan, Inperioan eta Dominatuan zehar, baita Erromaren aginteak gainbehera egin ondoren ere, oso erromartuak ziren *leges barbarorum* batzuei esker. Garai hartakoak dira VI. mendean Justinianok kodetu zituen testu handiak. Baina, zuzenbide pribatuari dagokionez, adierazgarriagoa izan zen bigarren fasea, XII. mendetik XIX. mendera bitartekoa. Seiehun urtean zehar, zuzenbide erromatarrek, *ratio scripta* modura hartua zenak, unibertsitate-irakaskuntzaren monopolioa izan zuen, zuzenean aplikatu zen herrialde batzuetan, eta zeharka bere egin zuten beste herrialde batzuek.



Bestetik, herri-zuzenbidea zegoen, ohitura-oinarri sendokoa, Erdialdeko eta Iparraldeko Europan, hau da, erromatuzen klasikoak askoz ere indar gutxiago izan zuen lurraldeetan. Ohitura nagusitu zen han Goi Erdi Aroan eta Behe Erdi Aroan. Kontinenteko eremu harietan gerora gertatu zen erromatartzea, zuzenbide komunaren bigarren uholdearen garaian, Germaniako Erromatar Inperio Santuak erabilitako arrazoi politikoei esker, batez ere.

Euskal Herrian, beste lurralde kantabriar eta piriniotar batzuetan bezala, oso bizirik iraun zuen ohiturak Goi Erdi Aroan eta Behe Erdi Aroan zehar. Mendebaldeko Baskoniako lurraldeek, hau da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak, zuzenbide erromatarra Gaztelako errege-zuzenbidearen bidez hartu zuten, nagusiki. Esan nahi dudana da Gaztela eta Leongo erregeek, XIII. mendearen bigarren erditik aurrera, nabarmen erabili zutela zuzenbide erromatarra legeak emateko, dela Errege Foruan (Arabian laster bere egin zutena) dela, eta, batez ere, 1348az gero indarreko zuzenbide bihurtu ziren Partidetan. Agiriak diotenez, euskal udalerrietan Alcalako Gorteetan ezarritako iturriak aplikatu zituzten data horretatik aurrera. Zer esan nahi du horrek? Mendebaldeko Baskonian, errege-zuzenbide erromatartuak baztertu egin zuela herri zuzenbidea? Parte batean bakarrik. Bizkaian, Lur Lauan aplikatzen zen herriaren zuzenbidea 1452ko Foru Zaharrea jaso zen, eta Aro Moderno osoan indarrean egon zen, 1526ko Foru Berria apur bat egokituta ageri bada ere. Eta badakigunez, landa ingurune hiri biltuetan ohitura aplikatzen zuten. Gauza jakina da, orobat, Gipuzkoan familia- eta ondorengotza-azietan ohitura aplikatzen zela, notario bidez. Bestalde, zuzenbide publikoari dagokionez, etengabe sortu ziren erakundeak XIV. mendearen bigarren erditik aurrera, komunitatearen eta erregearen arteko interakzioaren ondorioz. Izaera publikoko ohiturak erabileraren eta errege-berrespenen bidez zilegitu ziren, eta bene-benetako konstituzio historiko bat osatu zuten.

Nafarroan, erabateko eraso erromanista ez zen Aro Modernora arte gauzatu. 1512ko konkistaren ondoren, erresuma Gaztelako Koroari atxiki zitzaionean, hartu genuen zuzenbide erromatarra, mendearen amaieran, zuzenbide gaztelarra erresumako zuzenbide ordezkatzailer bihurtu zedin.

8.

Caro Barojari irakurri izan diot euskal kultura aztertzen dutenengan eta azertu izan dutenengan bi joera zein baino zein

arriskutsuago antzeman direla: gure herriaren adierazpen kulturalen erabateko originaltasuna aldarrikatzen dutenena, bata, eta, adierazpen horiek Europako beste herri askorekin partekatzen omen ditugulakoan originaltasun hori erabat ukatzen dutenena, bestea. Zuzenbideari gagozkiola, zer esan daiteke gure erakundeen originaltasunaz?

Egia da euskal zuzenbidearen “originaltasunaz” mintzo direla batzuk, eta egia da, halaber, hitz hori entzuteak beren onetik ateratzen dituela beste hainbat. Azken horiek “Euskal” terminoa bera ere ez lukete onartuko edo nekez onartuko lukete. Kontua da, zuzenbide konparatuak erakutsi duenez, inon ere ez dagoela erabateko originaltasunik. Sistema juridiko guztiak gizarteko bizikidetzak dakartzan arazoak ebazteko formula sortak dira. Eta arazoak, azken batean, antzekoak dira toki guztietan (pertsonek ondasunekin duten lotura, ondasunen transmisioa, obligazioak nola sortzen diren, sexualitatearen eta ugalketaren arazoa nola konpontzen den, komunitate politikoa zer erakunde edo balio sozialek babesten duten, eta abar). Erantzunak, desberdintasun formalak gorabehera, oso antzekoak dira ere, eta, horri esker da posible zuzenbide konparatua. Zuzenbideen arteko berdintasuna are nabarmenagoa da, noski, bilakaera politikoan eta kulturean lotura estuagoa izan duten geografia-eremu jakin batzuetan. Bistakoa da, adibidez, mende askoan Erromatar Inperioaren mende bizi izan ziren gizarteek edo kristautzearen ondorioak izan zituztenek printzipio eta balio komun asko dituztela, eta hori islatu egiten da beren erakunde juridikoetan.

Baina,aldi berean, agerikoa da munduan hainbat motatako sistema juridikoak daudela (mendebaldekoak –erromatar-germaniarra, Common Law, sozialista–, musulmana, hindua, txinatarrak, japoniarra, idazketarik gabeko herrien sistemak, eta abar), eta nolabaiteko originaltasun edo berezitasuna ematen dieten ezaugarri berezi batzuk badituztela. Aipatutako familia horietako bakoitzeko zuzenbideetan nolabaiteko individualizazioa bereiz liteke, erlatiboa, noski; eta berezitasun apalago horien araberrako adjektiboak jartzen dizkiegu lurraldeetako azpisistemei: hala erabiltzen ditugu zuzenbide holandarra edo eskandinaviarra eta gisa horretako esapideak. Ikuspegi erlatibista horretatik, ba al dago euskal zuzenbideaz hitz egiterik? Euskal Herria, txikia izan arren, herrialde konposatua da, gaizki komunikatutako hainbat egitura politikok osatua. Aro Modernoan, Suitzako kantoiek Alemaniako inperioarekin izan zezaketaren antzeko erlazioa zuten euskal lurraldeek, alde bakarrarekin:



enperadoreak lurralde haietan baino askoz ere pisu handiagoko egitekoa zuen Espainiako erregeak euskal lurraldeetan. Hau da, jurisdikzio-sistema orokor askoz ere zabalago baten barruko azpisistemak ziren. Baina hori horrela izanda ere, lurraldeen erakunde-egitura askotarikoan ezaugarri edo joera orokor batzuk badaudela kontuan hartu beharra dago. Lehenik: originala izan edo ez, jatorriz Erdi Arotik zetorren zuzenbide bat eduki genuen XVIII. mendearen hasieratik aurrera, lau belaunaldi baino gehiagoz; monarkiaren gainerako erakunde politikoek ordurako galdua zuten bitartean. Eta iraunkortasuna eta iraupen luzea garrantzi handiko eragileak dira kulturaren esparru guztietan, zuzenbidean, batez ere (salbuespena berez da originala, zerren, zergatik gertatzen da salbuespen?). Gero, erakunde jakin batzuen pisua edo adierazgarritasuna dago: beste toki batzuetan ere izan ziren askatasun prozesalak, edo foru-pasea, edo ondorengotza-askatasun handiko sistemak, eta abar. Gurean, bereizgarria zera da: elementu batzuek sistemaren barruan izan duten nagusitasuna, horiek artikulatzeko modua, eta zuzenbidea eratzeko metodoak. Bestalde, erakunde soilez harago, kultura juridiko-politiko ere aipatu beharra dago; hau da, erakunde-sarea justifikatzeko eta defendatzeko mendez mende sorturiko gaien corpusa. Datu historikoen edo mitikoen bitartez oso mantso eraturako konstruktua dira, baina erro sakonak dituzte talde adierazpenetan. Gainera oso eraginkorrak izan dira identitatearen sorreran.

2.

Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioaren zuzendari akademikoa zara, eta bertan argitara ematen duzuen *Iura Vasconiae* aldizkariaren zuzendaria ere bai. Zein gabezia ikusten duzu euskal zuzenbidearen historiografian? Non daude hutsunerik nabarmenenak?

Nire ustez, arazoa gure sistemak osatzen dituzten erakunde berezien ezagutzarik eza da. Lehen aipatu ditudan erakunde horiez ari naiz.

Foruen garaian, eta are gehiago, Gerra Zibilera bitarteko garaian, intelektualek nahiz herritar xeheek gure erakundeekiko zuten begirunea kolokan jarri zuten historialari liberal edo ezkertiar oso zentralistek, diktadura amaitu baino apur bat lehenago, gure foruei egindako eraso izugarrien bidez. Estatu-nazionalismoa zilegitu beharra zegoen, euskal nazionalismoaren susperraldiak sortzen zuen izuari aurre egiteko. Azterketa historiografiko itxuraz mozorrotutako gatazka

politiko bat zen. Eragile horiek pribilegiozko kokalekua zuten herrialdeko ikerketa- eta irakaskuntza-sistemaren barruan, eta, batez ere, zentrotik kontrolatzen ziren hedabideetan. Horrek eragina izan du herriko jendearengan, hegemoniko bihurtu den erretorika baten distirak –eta horren azpian dagoen boterearen sostenguak– konplexua sortu izan dio jende askori. Beti izan dira Madrilgo jauregian edo akademian sartu eta gur eginez txapela kendu izan duten euskaldunak. *De Madrid viens la lumière*.

Lehenengo premia aurreiritziak gainditzea da. Herri honekiko maitasunak kritikoa izan behar du, ezinbestean, Koldo Mitxelena maisuak zioenez. Deontologia profesionala dago beste ezeren aurretik. Eta, gero, dagoeneko aipatu ditugun erakunde (kaparetasuna, askatasun zehatzen sistema, zergak, gudarostea, foru pasea, erakunde organikoak, pentsamendu politiko tradizionala...) ikasketa sistematikorako plan bat behar da, arazoizko denbora epe batean oinarrizko ikerketa sendoen corpus bat osa dezagun. Orduan egin ahal izango dugu sintesia eta orduan landu ahal izango ditugu unibertsitate-gidaliburu egokiak eta bestelako zabalkunde-lanak. Horixe lortu nahi du Fundazioak.

10.

Gure irakurleek eskertuko lukete aipatuko bazenizkigu jurista orok zuzenbidearen historiari buruz ezinbestean irakurri beharreko bi liburu ...

Aukera egiteak hautatzen ez dena baztertzea dakar nolabait. Uste dut errazagoa dela literatura edo filosofia lanen adierazgarritasunaz iritzia ematea, zuzenbideko lanenaz baino. Iraganeko obra juridikoak badira, eta zuzenbidearen bilakaeran izan duten eragina aintzat hartuta, liburu labur baina erabakigarrien aldeko hautua egingo nuke, adibidez: *De iure belli ac pacis*, Hugo Grociorena, 1625ekoa, edo *Dei delitti e delle pene*, Cesare Beccariarena, 1764 inguruan idatzia. Bi lan horiek ezinbestean irakurri eta iruzkindu beharko lirakeke lizentziako ikasketetan. Garrantzizkoa iruditzen zait, aurrekoak baino maila apalagoan bada ere, Jeremy Benthamen *An Introduction to the Principles of Morals and Legislation*, 1780an idatzia. Lan horretan aztertzen diren auziak lehengai ezin hobea izan daitezke gelako eztabaidetarako. Zuzenbide eta moral publikoaren funtsean dauden auzi iraunkorrak dira. Horiek ezagutzea, berraztertzea eta barneratzea zuzenbide positibo aldakorra buruz ikastea baino garrantzizkoagoa da.



Historiografiako lanei dagokienez... Horretan kontserbadore samarra naiz; nahiago ditut erudizio-eskuliburu sendoak, moda iragankorren mende ez daudenak, adibidez: gaztelaniazko Alfonso García Galloren obra edo Olivier Martínen frantses zuzenbidearen historia. Hala ere, zuzenbidearen historiako eskuliburu bikainak daude alemanez eta italieraz ere. Nolanahi ere, testu horiek ez dira galkorrak. Eta horregatik da hain garrantzizkoa Zuzenbide ikasketak egitean Zuzenbidearen Historia ongi lantzea.

11.

Eta, azkenik, beti egiten dugun galdera: *Zuzenbidea euskaraz, zer iradokitzen dizu hitz pare horrek?*

Zuzenbidea funtsezko kultura-fenomeno bat da, beste zer baino gehiago, herritar guztien bizitzan eragina baitu, jaiotzen direnetik hiltzen diren arteraino. Eta askori, gehienei, nabarmen eragiten die, gainera, bizitzako hainbat arlotan. Zaila litzateke hizkuntza eta kultura normalizatua ditugula sinestea, kultura-fenomeno adierazgarri hori ez bada euskaraz bideratzen era nabarmenean, zuzenbidearen adierazpenerako eta aplikaziorako hizkuntza bat edo bestea soilik erabiltzeari amore ematen badiogu, hizkuntzaren erabilera sozial garrantzi handikoa izanik. Begibistakoa da euskal legelariak hizkuntza horiek jakin behar dituztela eta ongi menderatu behar dituztela horien teknolekto juridikoak, hizkuntza-egoera berezia baitugu orain eta izango baitugu etorkizunean, baina euskarak espazio nabarmena behar luke lanbide juridikoen formazioan eta trebakuntzan, baita jardueran ere. Horregatik da hain garrantzizkoa ELERIA.

Elkarrizketatzailea: Itziar Alkorta Idiakez